

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga erroldak kobratzea. 2019ko ekitaldia

Hura jendaurrean egon da hamabost egunez, 2019ko irailaren 16ko ALHAOn (107. zk.) argitaratu zenetik aurrera, eta epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu.

2019ko urriaren 26tik abenduaren 26ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren urteko ordainagiriak.

#### I. Ordaintzeko epeak

A) Borondatezko epea: 2019ko urriaren 26tik abenduaren 26ra.

B) Betearazte aldia: 2018ko abenduaren 27tik aurrera betearaztealdiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

2019ko urriaren 30etik abenduaren 30era bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak.

#### I. Ordaintzeko epeak

A) Borondatezko epea: 2019ko urriaren 30etik abenduaren 30era.

B) Betearazte aldia: 2018ko abenduaren 31tik aurrera betearaztealdiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

#### II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Helbideratutako ordainagiriak, landa ondasunen ordainagiriak badira, urriaren 28an kobratuko dira, eta azaroaren 15ean hiri ondasunen ordainagiriak badira.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenez, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako zergen Foru Arau orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2019ko urriaren 10a

*Alkatea*

**MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ**